

- **Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure proiektuak arrakasta izan dezan, beharrezkoa dela uste dugu bezeroekin harreman estua izatea eta profesionalak izatea. Jarraitzeko, agerian dago hainbat baliabide material behar ditugula, hala nola bizikletak, bizikletak uzteko lekua, langileentzako uniformeak, ordenagailuak eta publizitatea egiteko materialak. Aipatutakoa betetzeko beharrezkoa da baliabide ekonomikoak izatea.

Gainera, gaur egun teknologia berrietara irekitzea oso garrantzitsua dela uste dugu eta horretarako webgune bat sortuko dugu, gure lanari buruzko informazioa eman ahal izateko eta bezeroen iritzia eta abar irakurri ahal izateko egunez egun hobetzeko.



Amaitzeko, beharrezkoa da taldean lan egiten jakitea eta erronka guztiei batera aurre egitea. Gure taldean, beharrezkoa da baliabide intelektualak aurkitzea, hala nola, Nagorek eta Juneke trebetasun ugari dituzte diseinu originalak sortzeko eta horrela bezeroaren arreta erakartzeko. Marak besteekin komunikatzeko erraztasuna du eta horrek hornitzaileekin harremanetan jartzen lagun gaitzake. Azkenik, Martak ordenagailuaren kontrol handia du eta web orria sortu ahal izango luke.